

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari**

Udalbatzak, 2021eko martxoaren 26an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki du hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Jendaurreko aldi hori igaro eta erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onetsizat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Burgelu, 2021eko martxoaren 26a

*Alkate-lehendakaria*

**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**